

2018 ABE. 13

SARRERA
IRTEERA 1570
KODE

DEKRETUA

(decreto)

DATA: 2018/12/11
NORENA: Markina-Xemeingo Alkate-Udalburu Juan Jose Txurruka Txurruka jaunarena.
GAIA: Markina-Xemeingo udaleko karrerako hiru administrari plaza betetzeko funtzionarioen (hiru) izendapena. Taldea: C; Azpitaldea: C1; Eskala: Administrazio Orokorra; Azpieskala: Administratiboa.

Juan Jose Txurruka Txurruka, Markina-Xemeingo (Bizkaia) Alkate-Udalburua naizen honek

IKUSITA

Markina-Xemeingo Tokiko Gobernu-Batzarrak, 2018ko urriaren 4ko bileran, udaleko funtzionarioen plantillan hutsik zeuden hiru administrari plaza barne sustapen murriztu bidez betetzeko deialdia eta berariazko oinarriak onartu zituen.

2018ko azaroaren 19an, hautatze prozesua kalifikatzeko beren-beregi izendatutako epaimahaia bildu zen eta deialdia gainditu dutenen kopurua (3) deitutako plazena (3) bestekoa izanik, hirurak izendatzeko proposamena egin zion Alkateari eta lanpostu bakoitzari behinbetiko atxikipena egitea eskatu.

Horiek horrela

EBATZI DUT:

LEHENENGOA: Lourdes Aldekoa Ondarroa, Elena Gisasola Etxaniz eta Inma Aransolo Arizmendiarieta Markina-Xemeingo udaleko karrerako administrari izendatzea. Lanpostuaren ezaugarriak honakoak direla, LPZ-ren arabera: Taldea: C; Azpitaldea: C1; Eskala: Administrazio Orokorra; Azpieskala: Administratiboa.

BIGARRENA: Erabakia jendaurreko egitea, udalaren web-gunean argitaratuta eta udaletxeko iragarki taulan jarrita, Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateratuaren 62. artikuluan xedatutakoaren arabera, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua, urriaren 30ekoa eta Estatuko Administrazio Orokorrean sartzeko Erregelamendu Orokorrearen 25.2 artikulua arabera eta Estatuko Administrazio Orokorrearen Funtzionario zibilen Lanpostuen Horniketa eta Sustapen Profesionalaren arabera, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak onartutakoa.

MARKINA-XEMEINen, bi mila eta hemezortziko abenduaren hamaikan.